

**GOBERNU JUNTAK 2017.12.19an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABAETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA
ARETXABAETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko abenduaren 19an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2017ko azaroaren 14an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2018ko Aurrekontu Orokorra, Plantila eta Lanpostuen Zerrenda onartzea

Aurrekontua onartu aurretik Arrasateko Udalak hainbat zalantza argitu nahi dituzenez, gai hau mahai gainean uztea erabaki da, Gobernu Juntaren hurrengo bilkurara arte.

2.2.- 2018ko lan egutegiak onartzea

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ONARTU DITU langileen ordezkariekin negoziatutako 2018. urterako lan-egutegiak. Honako hauek dira:

- Zerbitzu Orokorretako langileen egutegia.
- Ingurumen Zerbitzuko langileen egutegiak:
 - Bulegoetako langileak.
 - Etxeko hondakin bilketa zerbitzuko langileak.
 - Garbiguneetako langileak.
 - Epeleko Zabortegiko langileak.
- Garapen Ekonomikorako Agentzia Zerbitzuko langileen egutegia.
 - Orokorra.
 - Turismo Teknikarien banakako egutegia.

2.3.- Foru Kontratazio Zentrala

Ibilgailuen estaldurei buruzko kontratazio espedientea; kontratuaren esleipena

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko uztailaren 26ko erabakiaren bidez onartu zen Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ibilgailuen estaldura kontratatzeko esparru akordioa burutzeko kontratazio espedientea.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Departamentuko foru diputatuak, 2017ko azaroaren 6ko foru aginduaren bitartez, aipatu esparru akordioa BILBAO COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresarekin burutzea ebatzi zuen.

Mankomunitate honi dagokio orain, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua BILBAO COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

LEHENENGO.- BILBAO COMPAÑÍA ANÓNIMA DE SEGUROS Y REASEGUROS enpresari esleitzea, “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez ibilgailuen estaldura kontratatzeke esparru akordiotik” eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- Gastua onartzea eta enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea

Posta zerbitzua emateko kontratua luzatzea.

Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatuak, 2015eko urriaren 22ko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS enpresarekin burutzea “Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez posta zerbitzua kontratatzeke esparru akordioa”, hasieran bi urteko iraupenarekin, eta beste bi urterako luzatzeko aukerarekin.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

Orain, Foru Aldundiak Esparru Akordioa urtebetez luzatzea proposatu duenez, eta Mankomunitateak zerbitzu honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea Mankomunitate honek posta zerbitzua emateko SOCIEDAD ESTATAL CORREOS Y TELÉGRAFOS enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.

2.4.- Hainbat berme bueltatzea

Ondoren zehazten den behin betiko bermea itzultzeko espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Ondorengo bermea itzultzea:

Enpresa: BAÑU-ETXE, S.L.

Kontratua: Papera eta kartoia saltzeko kontratua (2013)

Zenbatekoa: **12.000 €.**

2.5.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ordezkariak izendatzea

Mankomunitateko Gobernu Juntak, 2015eko irailaren 8an egindako bilkuran, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ondorengo ordezkari titularrak izendatu zituen:

1. UNAI ELKORO OIANGUREN
2. LANDER ARREGI INCHAUSTI
3. MARIA UBARRETXENA CID

Orain dela hilabete batzuk Maria Ubarretxenak bere izendapena bertan behera uztea eskatu zuen, oraindik ez delarik beste ordezkaririk izendatu. Bestalde, ordezkoak ere oraindik izendatu gabe daude.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, Iraitz Lazkano eta Beñardo Kortabarriaren abstentzioarekin, ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Nagusirako ondorengo ordezkariak izendatzea:
 - Titularra: JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
 - Ordezkoak:
 - ELENA LETE GARCIA (Unairen ordezkoa)
 - JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU (Landerren ordezkoa)
 - OSCAR GARCÍA HORRILLO (Juan Karlosen ordezkoa)

Beraz, ordezkaritza honela gelditzen da:

Titularrak:

UNAI ELKORO OIANGUREN
LANDER ARREGI INCHAUSTI
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA

Ordezkoak:

ELENA LETE GARCIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
OSCAR GARCÍA HORRILLO

2.6.- 2018ko Gobernu Juntaren ohiko bilkuren egutegia onartzea

Aho batez ONARTU DA Gobernu Juntak 2018. urtean egingo dituen ohiko bilkuren egutegia. Honako hau da:

Urtarrilak 23
Otsailak 20
Martxoak 20
Apirilak 24
Maiatzak 15
Ekainak 19
Uztailak 17
Irailak 18
Urriak 16
Azaroak 20
Abenduak 18

2.7.- Hainbat aseguru-poliza egiteko kontratu txikia

Ondoren zehaztutako aseguru-polizak egiteko aurkeztutako eskaintzei buruzko idazkariaren txostena ikusirik, eta kontuan izanda azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 138.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hau kontratu txikia dela.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gastua onartzea, eta MAPFRE ASEGURUAK enpresari urtebetez, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31arte, ondorengo aseguru-polizak egiteko kontratu txikia esleitzea guztira 9.746,20 €-ko prezioan, bere proposamenean zehaztutako baldintzetan:
 - Hiltegiko kalteen aseguru-poliza.
 - Zaldibar eraikineko kalteen aseguru-poliza.
 - Meatzerreka garajeko kalteen aseguru-poliza.
 - Erantzukizun zibilaren aseguru-poliza.

2.8.- Kobra-gaitzen espedienteen tramitazioa

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Itxita dauden ondorengo enpresen kobrantza fakturak kobra-gaitz izendatzea, agiriak diru-bilketatik kenduz eta kobrantza eskubideak kontabilitatetik baliogabetuz:

63-2013-01	69	PASTELERIA MURUAMENDIARATZ	451,35 €
63-2013-05	54	RAMIRO IGLESIAS CUESTA	43,07 €
63-2014-01	12	CEGASA INTERNACIONAL SA	13.438,45 €
63-2014-02	7	CEGASA INTERNACIONAL SA	9.021,99 €
63-2014-03	9	CEGASA INTERNACIONAL SA	2.305,32 €
55-2015-04	4	FAGOR ETXETRESNA TXIKIAK	148,27 €
Guztira:			25.408,45 €

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Zergadun baliokideak

Hondakin bilketa zerbitzuko kosteak Udalen artean banatzeko gaur egun erabiltzen den zergadun baliokideen irizpidea nondik datorren eta nola kalkulatzeko den azaldu du kontu-hartzaileak.

Jakinaren gainean gelditu da Gobernu Junta.

3.2.- Epeleko zabortegia; Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa onartzea

Pertsonal Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Epeleko zabortegiko giza baliabideak arrazionalizatzeko ondorengo Programa onartzea:

“EPELEKO ZABORTEGIA IXTEAK ERAGINDAKO GIZA BALIABIDEAK ARRAZIONALIZATZEKO PROGRAMA

Aurrekariak

2017. urtean zehar, Epeleko zabortegiko aktibitatea nabarmenki murriztu da, bidaia kopurua asko gutxitu da, fakturazioa batz besterik %40 inguru jaitsi delarik. Egoera

honetan, Ingurumen zerbitzuko teknikariek zabortegia ustiatzeko egon daitezkeen aukera ezberdinak aztertu dituzte:

- **1. aukera - Zabortegia hondakin ez arriskutsuena izatetik hondakin geldoena izatera igarotzea:** Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak (EEH-RCD) plantan igeltsua duten sulfatodun hondakinak jaso ezin direnez, teknikariek zabortegiaren izaera aldatu eta igeltsudun hondakin hauek jaso ahal izateko hondakin geldoen zabortegia bilakatzea aztertu zuten lehen aukera moduan. Horrela, 2. zelda bete ondoren, 3. zelda hondakin geldoentzat egokituko zatekeen, horretarako egin beharreko obra-lanak sinpleagoak eta merkeagoak izateaz gain, ustiapen lanak ere errazagoak eta sinpleagoak izan bailirateke. Baina aukera hau bertan behera gelditu da, teknikariek 2012ko EEH-en inguruko 112.en dekretuak igeltsudun hondakinak zabortegi inerte edo geldoetan ezin direla onartu argi eta garbi zehazten dela baieztatu baitute.
- **2.aukera – gaur egungo izaera berdinarekin funtzionatzen jarraitu, hondakin ez arriskutsuen zabortegi gisa, 2. zelda bete arte:** zabortegian egindako azken topografia neurketen arabera eta Eusko Jaurilaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak onartu berri duen 2.zeldaren 2,5 m-ko kota igoera kontuan izanik, azken hilabeteetako hondakin sarrerak mantenduko balira, 2.zelda gutxi gora behera 2018ko abuztuan beteko litzatekeela aurreikusten da.
- **3.aukera – EEH/RCD plantan onartu ezin diren igeltsudun hondakinak kudeatzeko barne zabortegia eraiki:** 3. zelda soilik barne-erabilerarako eraikiko litzateke, hondakin ez arriskutsuen zabortegi gisa, EEH/RCD plantan onartu ezin diren igeltsudun hondakinak bertara bideratuz eta beraz hondakin hauen kudeaketa autonomoarekin jarraituaz. 3. zelda eraikitzeak ez-jakintasun handia ekarriko luke, gaur egungo aktibitate erritmoak ez lukeelako zabortegiaren diru-funtsa sortzeko eta beharrezko diren obren kostua ordaintzeko gaitasunik izango. Ondorioz, ustiapen kostetatik haratago dauden gastuak udalek beregan hartu beharko lituzkete. Gaur egun zehaztutako itxi ondorengo 30 urteko jarraipen lanen epea ere europar batasunetik luzatzeko (eta beraz gastuak handiagotzeko) arriskua ere egongo litzateke 3. zelda eraikiz gero.

Hau guztia kontuan izanik, 2018ra begira, Epeleko zabortegiko antolakuntza aldatu eta ustiapen eredu berri bat martxan jarriko da. Horrela, gaur egungo ordutegia egunean 10 orduz jarraian irekia egotetik 5,5 ordu irekitzera igaroko da, goizez 3,5 ordu eta arratsalde 2 ordu. Ordutegia goiz eta arratsalde banatuko da, azken hilabeteetan zabortegian izandako sarrera orduen arabera. Sarrera hauek aztertuta, eguerdi aldean sarrera kopurua nabarmen murrizten dela ikus daiteke eta, ondorioz, 2018rako ordutegi berria murrizterako orduan, egokiena eguerdian zabortegia ixtea dela kontsideratzen dugu. Ordutegia aldatetaz gain, zabortegian erabiltzen den makinaria ere erdira murriztuko da.

Ustiapen eredu aldaketa honek zuzenean eragiten die Epeleko zabortegiarekin lotutako lanpostuei.

Gaur egun Mankomunitateko Plantilan eta Lanpostuen Zerrendan Epeleko zabortegiarekin lotutako honako lanpostu hauek daude:

- **Zaindari bat lanaldi osoz.** Lan kontratudun langile finkoa. Joseba Arejolaleiba.
- **Zaindari bat lanaldi erdiz.** Aldi baterako langile batekin beteta.
- **Zerbitzu askotako bi langile lanaldi osoz.** Lan kontratudun langile finkoak. Imanol Ayala eta Manex Larrinaga. Bi langile hauek txandaka egiten dituzte Epeleko zabortegiko makinista lanak eta garbiguneetako hondakinen garraio lanak.

Aipaturiko langileen egoera banan-banan aztertuta, baita Mankomunitateko Zerbitzuen pertsonal-premiak eta kasu bakoitzean aplika daitezkeen aukerak ere, eta doakienei entzun ondoren, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa hau prestatu da, langileen ordezkariekin negoziatua.

Gogoeta juridikoak

Herri Administrazioan giza baliabideen plangintza oinarri honetatik abiatu egin behar da: dagozkion herri-zerbitzuak emateko ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatzera eta lortzera jo behar da, betiere zorrotz errespetatuz antolamendu juridikoa eta, horregatik, une bakoitzean indarrean dagoen legerian ezarritako teknikak eta bitartekoak erabili behar dira, eta hori Espainiako Konstituzioaren 103,1 artikuluko agintzen duena betetzea besterik ez da: "Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatzen ditu interes orokorrak, eta jarduera-printzipioa ditu eraginkortasuna, hierarkia, deszentralizazioa, deskontzentrazioa eta koordinazioa, legeria eta zuzenbideari osotara men egirik".

Konstituzioaren testuaz gain, langile-gaietan esparru juridikoa Estatuko oinarrizko legeriak osatzen du, eta hori urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuak, Administrazio Langileen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, jasotzen du.

Gure Autonomia Erkidegoan, uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatutakoaren arabera, da kontuan izan beharrekoa.

Herri Administrazio guztietan aplikatzekoa den Estatuko oinarrizko legeriaz eta legeria autonomikoaz gain, badira beste lege-testu batzuk Toki Administrazioa osatzen duten erakundeen zerbitzura dauden langileak arautzen dituztenak.

Noski, eta horri guztiori indarrean dagoen lan-araudi guztia gehitu behar zaio, bai legekoa eta bai konbentzionala.

Bai funtzio publikoari buruzko araudiak eta bai lan-araudiak, hark honen atzetik gehienetan, beren bilakaera izan dute, bai lan-merkatuan eta bai pertsonalaren antolaketa eta kudeaketan bizi dugun errealitate aldakorrera egokitzeko. Honela, lan-araudiak administrazioari, edozein enpresari bezalaxe, egokitzapen horretarako tresna berriak emanak baldin bazizkion Langileen Estatutuan egindako erreformen bidez, zuzenbide publikoko araudiak ere horretan bat egin du aipaturiko legeetan (estatu-

eremukoa den eta oinarritzko izaera duen 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuan, eta erkidego mailakoa den 16/1997 Legean ezarritako neurri eta tresnen bidez. Horietan arautzen dira, hurrenez hurren, Giza Baliabideen Antolamendurako Planak eta Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programak.

Honela, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legearen arabera aldatuta, zehazki 22.1 artikuluan, ondorengo ezartzen du: "Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzen duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organoei langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera".

Horrek guztiorrek erraztu egingo dizkie eragile publikoei beren zerbitzupeko langileen kudeaketa-arloan egin beharrekoa eta, zehatzago esanda, pertsonal-politika egoki bati jarraitzea, horrela auto-antolatzen gaitasunean oinarriturik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 90. artikuluan ezartzen duenaren arabera, arrazionaltasun, ekonomia eta eraginkortasun printzipioei erantzunez plantillak egitea eta ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera ezartzea.

Eta hain zuzen ere printzipio horietan oinarritzen dira Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honetan ezarritako neurriak.

XEDAPEN OROKORRAK

1.- Xedea

Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa honen xedea hau da: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege-Dekretuak, Administrazio Langilearen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 69. artikuluan ezarritako jardun edo neurri batzuen aplikazioa, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak sartutako aldaketaren arabera, 22. artikuluan ezarritakoan oinarrituta; hori guztiori Epeleko zabortegiko langileei dagokienez, 2018ko abuztuan aurreikusten delarik aipatu zabortegia ixtea.

Aipaturiko 22. artikulua ondorengo ezartzen du:

1. "Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzen duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernu-organoei langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera".

Halaber, artikuluko horren berorren 2 eta 3 atalek ondorengoa adierazten dute:

2. *“Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, alde aurretik jubilatu daitezenezentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke.*
3. *Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan.”*

2.- Aplikazio-eremua

Programa hau Debagoieneko Mankomunitateko Plantillan eta Lanpostuen Zerrendan Epeleko Zabortegiarekin lotutako lanpostuetako langileei, lehen zehaztu direnei, aplikatuko zaie.

3.- Indarraldia

Programa hau 2018ko otsailaren 1ean sartuko da indarrean, eta bertan ezarritako neurriak betetzen bukatu artekoa izango da.

4.- Programaren helburuak

Programa honen lehentasunezko helburua da Epeleko zabortegian lan egiten duten Mankomunitateko langileen egoera konpontzea, aipatu zabortegiaren itxieraren eta, beraz, lanpostu horien amortizazioaren ondorioz sortua.

5.- Arrazionalizazio Programa garatzeko neurriak

1.- Epeleko zabortegiarekin lotutako Mankomunitateko lanpostu hauek amortizatzea 2018ko otsailaren 1ean:

- *Zabortegiko zaindaria (lanaldi erdikoa).*
- *Zerbitzu askotako langile bat.*

2.- 2018ko otsailaren 1etik zabortegia itxi arte (aurreikuspena: 2018/08, gehienez 2018/12/31), lanaldi osoko zabortegiko zaindaria lanpostua zaindaria/makinista bihurtuko da. Horretarako, lanpostu honen titularra den Joseba Arejolaleibari aurrez dagokion prestakuntza emango zaio, eta bere lan ordutegia honako hau izango da:

- *8:00-12:30*
- *15:00-17:30 edo 15:30-18:00*

Zabortegiak irekita jarraituko balu 2018ko abuztua eta gero, Josebak goizez bakarrik, lanaldi jarraian, egingo luke lan.

Zabortegia ixten denean, eta gehienez 2018ko abenduaren 31n, zaindaria/makinista lanpostua amortizatuko da eta bere titularra behin betiko atxikiko zaio bete gabe dagoen Ingurumen Zerbitzuko txofer-zamaketari lanpostuari.

3.- “Zerbitzu askotako langile” beste lanpostua Ingurumen Zerbitzuko txofer-zamaketari bihurtuko da.

4.- Gaur egungo “zerbitzu askotako langile” lanpostuen 2 titularrak, Imanol Ayala eta Manex Larrinaga, Ingurumen Zerbitzuko txofer-zamaketari 2 lanposturi atxikiko zaie behin betiko, bat bihurtutakoa eta bestea bete gabe dagoena. Bi langile hauek, beste eginkizun batzuen artean, txandaka egingo dute, gaur egun bezala, garbiguneetako garraio zerbitzua, goiz eta arratsaldean.

Programa hau indarrean sartzen denetik aurrera, 2018/02/01, hiru langile hauen ordainsaria txofer-zamaketari lanpostuei dagokiena izango da.

6.- Plantila eta Lanpostuen Zerrenda

Indarrean dagoen Espainiako legeriak esaten du Lanpostuen Zerrenda (LPZ-RPT) dela Herri Administrazioaren giza baliabideak arrazionalizatzeko era.

Programa honetan ezarritako neurriak gauzatu ahal izateko, Gobernu Juntak onar dezan Mankomunitateak 2018. urterako duen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aurkeztuko dira, eta hor sartuta egongo dira neurri horiek.”

2. Programa honetan jasotako neurriak gauzatzeko beharrezko izapideak betetzea.

3.3.- Ehunkiak bildu eta kudeatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea

Arropa erabilia eta tamaina txikiko objektu berrerabilgarrien gaikako bilketa, bildutako materialen kudeaketa eta edukiontzien garbiketa eta mantentzea egiteko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.
5. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera, Enplegu-Zentro Bereziei eta abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako Gizarteratze-Enpresei erreserbatzea kontratu hau.

3.4.- Hondakin bilketa zerbitzurako bi ibilgailuz hornitzeko kontratazio espedientea

Hondakin bilketa zerbitzurako bi ibilgailuz (bat edukiontziak garraiatzeko eta bestea garbitzeko) hornitzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.

2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berri bat; S.I.M.

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da. Proposatutako jardura honako hau da: meditazioa, tibetar kaikuak eta reiki kontsulta.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- S.I.M. jaunaren eskaera ez onartzea, proposatutako jardura ez datorrelako bat Enpresa Ekintzetarako Zentroaren helburuarekin, ez baitu inongo oinarri zientifikorik.

4.2.- Bitarteko funtzionarioen hainbat izendapen egiteko proposamena

Garapen Agentzia Batzordearen irizpen txostenak irakurri dira. Txosten hauetan 2018. urtean Agentzia Zerbitzuak, beste Administrazio batzuen finantzazioarekin, kudeatuko dituen hainbat programa garatzeko aldi baterako pertsonalaren beharra jasotzen da.

Alde batetik, teknikari baten eta lanaldi erdiko administrari baten beharra, ondorengo programak garatzeko:

- “3G Gaitasunak Garaituz Goiaz”
- “Hazilan”
- “Txertatu Merkatuan”

Eta bestalde, bi lan orientatzailearen beharra LANBIDEk finantzatutako ondorengo programak garatzeko:

- “Orientazio Ekintzak”
- “Enplegu Zentroa”

Agentzia Zerbitzuko arduradunaren txostenak ere irakurri dira, non esaten den 2018rako izendapen hauek ezinbestekoak direla.

Idazkariak esan du, nahiz eta aldi baterako izendapen hauek programa zehatz batzuk garatzeko izan, azken urte hauetan urtero egiten diren izendapenak direla, eta horrek behar estruktural bat adierazten duela.

Pertsonal Batzordeak, bere aldetik, bere oniritzia eman die 2018rako izendapen hauei, baina bi hilabeteko epean behin betiko beharrak definitu, dagokion lanpostuak sortu eta legediak ahalbidetzen duenean behin betiko betetzeko konpromisoarekin.

Gobernu Juntak, Garapen Agentzia eta Pertsonal Batzordearen proposamenak jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU.

1. Mankomunitateak lan hauetarako duen lan poltsa erabiliz, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte teknikari bat bitarteko funtzionario izendatzea, 2018. urtean Garapen Agentzia Zerbitzuak garatu beharreko ondorengo programak garatzeko: “3G Gaitasunak Garaituz Goiaz”, “Hazilan” eta “Txertatu Merkatuan”. Hileko ordainsari gordina 2.283,40 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
 - Soldata: 940,43 € (A2)
 - Lanpostu-mailako osagarria: 402,27 € (18)
 - Berariazko osagarria: 940,70 €.

2. Agentzia Zerbitzuko lanaldi erdirako administraria den Naiara Aranburu 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte beste lanaldi erdirako bitarteko funtzionario izendatzea “3G Gaitasunak Garaituz Goiaz”, “Hazilan” eta “Txertatu Merkatuan” programak garatzeko lan administratiboak egiteko. Hileko ordainsari gordina 1.110,93 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
 - Soldata: 360,14 € (C1)
 - Lanpostu-mailako osagarria: 189,29 € (17)
 - Berariazko osagarria: 561,50 €.

3. Lan orientatzaileen lan poltsa erabiliz, 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte bi lan orientatzaile bitarteko funtzionario izendatzea, alde batetik, Enplegu Zentroaren kudeaketa eta lan orientazio lanak egiteko LANBIDEn 2017ko deialdiaren barruan (2017ko uztailaren 28ko EHAA), eta bestetik, LANBIDEn 2017ko deialdiaren barruan (2017ko uztailaren 31ko EHAA) finantzatutako Enplegurako Orientazio –Ekintza programa garatzeko. Hileko ordainsari gordina 2.346,23 €koa izango da, ondorengo xehekapenaren arabera:
 - Soldata: 940,43 € (A2)
 - Lanpostu-mailako osagarria: 402,27 € (18)
 - Berariazko osagarria: 1003,53 €.

.....

4.3.- 2017ko Enplegu Plana; Udalekin lankidetzak hitzarmenak

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak 2017ko uztailaren 26an (uztailaren 28an argitaratutakoa) enplegua sustatzeko toki ekintzetarako laguntza deialdia onartu zuen. Debagoieneko Mankomunitateak aipatutako deialdira 322.502,01 euroko diru-laguntza eskaera egin zuen. 2017ko azaroaren 9an Mankomunitateak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren aldeko ebazpena jaso zuen eskatutako diru-laguntza onartuz.



Aipatutako programa barruan, eskualdeko udalek, 33 lan-kontratu sinatuko dituzte 2017. urtea bukatu aurretik. Kontratu horiek egiterakoan, udal bakoitzak, hautaketa prozesuak burutzeko, Lanbidek, deialdian jasotako betekizunak errespetatuko ditu eta Lanbidek emandako instrukzioak betetzeko ardura hartzen du.

Programaren barnean guztira Debagoiengan 33 kontratu egingo dira (Arrasateko Udalak 10, Bergarako Udalak 6, Oñatiko Udalak 8, Aretxabaletako Udalak 2, Eskoriatzako Udalak 3, Antzuolako Udalak 2, Elgetako Udalak 1 eta Leintz-Gatzagako Udalak 1).

Debagoieneko udalek egingo dituzten kontratuak Lanbidek ezarritako baldintzak beteko dituzte eta beraien ardura izango dira baldintza horiek ez betetzeak ekarri ditzaken ondorioak.

Kontratutako diren langabetuen hautaketa eta ordainketak udalek egingo dituzte. Mankomunitateak jasoko duen 322.502,01 euroko diru-laguntza udalei bideratuko die %55 kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %45a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen dutenean. Beti ere, Mankomunitateak ordainketa horiek, behin diru-laguntzak jaso ondoren, egingo ditu.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitateko 8 Udalekin lankidetzak hitzarmenak sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENENA.-ko Udalak langabetu kontratatuko ditu. Langabetu horiek kontratatuzko, udalak egin beharreko lan eskaintzak Arrasateko Lanbideko bulegoan aurkeztuko ditu. Udalak, Lanbidek eskaintzan parte hartzeko nahia azaldu eta baldintzak betetzen dituzten langabetuen artean, hautaketa prozesua burutuko du. Programaren bukaeran eta Mankomunitateak deskargua egin ahal izateko, dagokion lan eskaintzaren eta zerbitzuetako eskaintzen erregistro zenbakiez gain udalak langileen kontratuak, nominak eta TC1 eta TC2ko kopiak edo kosteak jasoko duen idazkaritzak egindako ziurtagiria emango dio Mankomunitateari.

BIGARRENA.-ko udalak egingo dituen kontratuak honako baldintzak beteko dituzte:

-

HIRUGARRENA.- Mankomunitateak Lanbidetik jasotako diru-laguntzatikeuro ordainduko dioko Udalari, %55a kontratuak egiterakoan eta gainontzeko %45a egindako kontratazioen gastua egiaztatzen duenean, beti ere, Mankomunitateak diru-laguntzak jaso eta gero.”

- Mankomunitateak Udal bakoitzari ordainduko dion zenbatekoa honako hau izango da:
 - Antzuola: 17.608,61 €.
 - Aretxabaleta: 25.000 €.
 - Arrasate: 116.784,96 €.
 - Bergara: 69.112,18 €.
 - Elgeta: 12.500 €.
 - Eskoriatza: 26.251,66 €.
 - Leintz-Gatzaga: 10.416,82 €.

- Oñati: 44.827,78 €.
- Udal bakoitzak egin beharreko kontratuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - Antzuola: 2 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 Emakumezkoa
 - Aretxabaleta: 2 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - Arrasate: 10 kontratu
 - 3 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - 4 Emakumezkoak
 - Bergara: 6 kontratu
 - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 3 Emakumezkoa
 - Elgeta: kontratu 1
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - Eskoriatza: 3 kontratu
 - 1 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 1 55 urtetik gorakoa
 - 1 Emakumezkoa
 - Leintz-Gatzaga: kontratu 1
 - 1 Emakumezkoa
 - Oñati: 8 kontratu
 - 2 DBE edo RGI jasotzen duen pertsona
 - 3 Emakumezkoak
 - 1 55 urtetik gorakoa

4.4.- Gizarteratze sarea diseinatzeko ikerketa bat egiteko Debegesarekin lankidetzaren hitzarmena

Mankomunitate hau DEBEGESA-rekin (Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A.) elkarlanean Gipuzkoako Foru Aldundiak “Etorkizuna Eraikiz” programaren barruan finantzaturako “Debabarrena eta Debagoiena Eskualdeetako Bazterkerian dauden Pertsonen Prestakuntza eta Enplegurako Sarea” proiektua garatzen ari da.

Orain, elkarlan honekin jarraituz, “Gizarteratze Sarea Diseinatzeko Ikerketa” bat egitea planteatzen da, DEBEGESAk Eusko Jaurlaritzatik hau egiteko diru-laguntza jaso baitu.

Hau honela izanik, eta Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- DEBEGESA-rekin beste lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea “Gizarteratze Sarea Diseinatzeko Ikerketa” egiteko, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENEA.- Hitzarmen honen xedea da Debegesa S.A.k Eusko Jaurlaritzarekin kontraturiko **“Gizarteratze Sarea Diseinatzeko Ikerketa”** lana burutzeko lanetan Debagoieneko Mankomunitateko partaidetza adostea. Aipatu



proiektuaren garapenean parte hartzera konprometitzen dira bi aldeek, behar hainbat gaitasun tekniko eta esperientziadun langileak horretan inplikatu. Proiektuaren helburu eta edukiak ondorengoak izango dira:

Debabarrena eta Debagoieneko Garapen Agentziek egindako diagnosiaren ondoren, bazterkerian dauden edo horretan erortzeko arriskuan dauden pertsonendako, batez ere gazteak eta ardura familiarrak dituzten emakumeendako, enplegua eta prestakuntza uztartzen dituzten programen sustapenaren beharra azaleratu da. Horrek, erantzun berritzaileak behar ditu, erakunde ezberdinen artean lankidetzeta eta sinergiak sustatuko dituena.

Era berean, gizartean barneratzeko ibilbideak landu behar dira, beti ere pertsona horien hezkuntza eta prestakuntza bidez komunitatean beraien txertaketa bideratzeko. Eskualde bietan prestakuntzarako baliabide egokiak daude baina baztertuak dauden pertsona nagusiendako ez da eskaintza egokirik. Horrek ez du esan nahi ekimen puntualak garatzen ez direnik baina eskaintza era koordinatu batean eman beharko litzateke, non parte hartuko luketen ardura partekatua duten erakundeak (Enplegua, Prestakuntza, Gizarte Soziala, buruko osasunaren zerbitzuak, Etxebide, e.a.)

Horrela garatu beharreko hiru lerro nagusi aurreikusten dira:

Beharren definizioa: Baztertuta dauden pertsonendako erantzun antolatua eta partekatua enplegu eta prestakuntza ekimenak bideratzeko.

Ezagutza: Pertsona talde horri erantzuna ematen dieten baliabide eta sistemen erlazioa.

Enplegu eta prestakuntza sare baten diseinu eta garapena: Txertaketarako banakako ibilbideak eskaintzen dituen sare koordinatua eta bateratuaren diseinu eta garapena.

Hori guztia kontuan hartuta, proposamen honek bilatzen duena, beti ere proiektu berritzailea bultzatuz, gizarteratzeko arazoak dituzten pertsona guztien beharretara egokituko den sarea garatzea. Pertsonen ahalmenak sustatuko dituzten dinamikak garatu nahi dira, beraien eskumenak kontuan hartuz, prestakuntzaren bidez, lan merkatuan txertatzeko aukerak handituko dituen bidea indartzea. Sare hori osatzeko elkar ezagutza erraztuko dituzten foroak sortu nahi dira, eragileen lankidetzaren bidez emaitzak areagotuz.

BIGARRENA.- Alde biek, ikerketa garatzeko Debagoieneko Mankomunitateak egingo dituen lan horiek, 8.791,32 eurotan (+BEZ) baloratzen dituzte. Debagoieneko Mankomunitateak ikerketa garatzeko egingo dituen lanengatik Debegesari faktura bat egingo dio aipatutako kopuruarengatik.

HIRUGARRENA.- Hitzarmen hau indargabetzeko arrazoiak izango dira:

- Aldeen akordioa berai indargabetu edo ezeztatzeko.
- Aldeetako bakoitzak ez betetzea hemen deskribaturiko klausulen edukiak.

LAUGARRENA.- Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, lankidetzaren esparruan, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatu beharko dira, eta ezingo dira erabili hitzarmen honetan hitzarturiko xedeaz bestelako helburu baterako.”

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

17/76.- 1.- J.M.T.L. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Azaroaren 8an, 10ean, 17an, 24an eta abenduaren 1ean J.D.L.T.
- Azaroaren 27an eta 28an J.E. txoferra ordezkatzeko.
- Azaroaren 29an eta 30ean, G.I. txofer-zamaketaria ordezkatzeko.
- Azaroaren 18an, hondakin bilketako kamioiak Elgoibarko plantan deskargatu eta gabitzeko.

Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- E.A.I. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Azaroaren 10etik 13ra, J.L.M. Garbiguneko zaintzailearena.
- Azaroaren 17tik abenduaren 15era arte, arratsalde, M.E. Epeleko zabortegiko zaintzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

3.- M.A.E. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Azaroaren 13an, J.A. Epeleko zabortegiko zaintzailearena.
- Azaroaren 14an eta 15ean, D.G. Garbiguneko zaintzailearena.
- Azaroaren 27an, A.U. Garbiguneko zaintzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

4.- A.A.G. kontratatzea hondakin bilketa zerbitzuko zamaketari lanak egiteko azaroaren 20tik 24ra G.I. orde. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- J.E.I. kontratatzea ondorengo lanak egiteko:

- Azaroaren 21etik 24ra, Oñatiko esekitokiak garbitu eta gomak kentzeko.
- Azaroaren 30etik abenduaren 31 arte, hondakin bilketa zerbitzuko hainbat lan egiteko.
Lan hauek egiteko zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.
- Azaroaren 27tik 29ra, D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko.
Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- A.A.I. kontratatzea azaroaren 27tik abenduaren 1era J.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/77.- 17/27 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREUN ETA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HOGEITA ZAZPI ZENTIMO (209.733,27 €).



17/78.- Kontuan izanda, Ertzantzaren atestatuan esaten den bezala, sute hau eragindakoa izan zela; beraz, edukiontzia jabe den Mankomunitatea beste kaltetu bat gehiago dela, han inguruan zeuden beste hainbat ibilgailuren eta etxeren jabeak bezala, eta Bergarako Udala bezala, bide publikoan eragindako kalteengatik.

Eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, 88.5 artikulua arabera, ikusirik agerikoa dela batere oinarririk ez duela eskaera honek.

EBAZTEN DUT

- D.L. andreak aurkeztutako ondare erantzukizun erreklamazioa ez onartzea.

17/79.- 17/28 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMA MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (31.535,23 €).

17/80.- 1.- A.A.I. kontratatzea txofer-zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Abenduaren 4an eta 7an, J.D.L.T. ordezkatzeko.
- Abenduaren 5ean, X.A. ordezkatzeko.
- Abenduaren 6an, ontzi arinak jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Abenduaren 8an, errefuxa jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Abenduaren 11n, aurre-bilketako zerbitzu berezia egiteko.
- Abenduaren 14tik 18ra, J.E. ordezkatzeko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- M.A.E. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Abenduaren 4an arratsalde, J.L.M. Garbiguneko zaintzailearena.
- Abenduaren 19an eta 26an, D.G. Garbiguneko zaintzailearena.
- Abenduaren 20an, A.U. Garbiguneko zaintzailearena.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

3.- A.A.G. kontratatzea S.C. zamaketaria ordezkatzeko abenduaren 4tik 22ra. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- J.M.T.L. kontratatzea txofer-zamaketari bezala ondorengo lanak egiteko:

- Abenduaren 4an, 5ean eta 7an, G.I. ordezkatzeko.
- Abenduaren 6an, ontzi arinak jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Abenduaren 8an, errefuxa jasotzeko zerbitzu berezia egiteko.
- Abenduaren 12an eta 13an, X.A. ordezkatzeko.
- Abenduaren 11n eta 15ean, J.D.L.T. ordezkatzeko.
- Abenduaren 14an, D.C. ordezkatzeko.

Txofer-zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- E.A.I. kontratatzea ondorengo ordezkapenak egiteko:

- Abenduaren 12an goizez, 21ean eta 22an, D.G. Garbiguneko zaintzailea.
- Abenduaren 26tik 30era, J.L.M. Garbiguneko zaintzailea.
- Urtarrilaren 2tik 5era, A.L. Garbiguneko zaintzailea.

Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

6.- I.J.I.G. kontratatzea abenduaren 15ean eta 19tik 29ra lanpostuko zereginak ikasi eta J.A. Epeleko zabortegiko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/81.- 17/29 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (28.342,50 €).

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2017-KALD-000003-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, Gobernu Juntak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	100.000,00	99.874,22	125,78
	GUZTIRA	100.000,00	99.874,22	125,78

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	820.589,49	99.874,22	920.463,71
GUZTIRA		820.589,49	99.874,22	920.463,71

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”

6.- GALDE-ERREGUAK

- Bere Udalaren erabakia betez, Maria Ubarretxenak planteatu du Arrasateko Markulete auzoan dagoen kotxeak garbitzeko gunea mankomunatzea, bere kostea Mankomunitateko Udalen artean banatuz. Beste Udaletako ordezkariak ez dute proposamen hau bidezkoa ikusten.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 13:30etan, bukatutzat eman da bilkura.